



URTEKO EROSKETARIK HANDIENAK

Zer erosten dugu? Ideia zehatzekin joaten al gara dendetara? Urtetik urtera ba al dago alderik? » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-01-06

VIURTEA 1.329 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IRITSI DIRA OPARIAK

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA Atzo iritsi ziren hiru Errege Magoak eskualdera, txikienen gozamenerako

GAUR Hainbeste itxaron ostean, opariak zabaltzeko unea heldu da; egun osoa jolasten igaroko dute txikienek 4-5



Eskaintza zabala, baina Gabonetako ajea nabaritzen hasia da azoka

TOLOSA Eguerdira arte jende gutxi gerturatu zen atzoko azokara 6



Errege-opilak. E. EZEIZA

Zergatik dugu gaurko egunez errege-opila jateko ohitura?

TOLOSALDEA Gosaltzeko edo postrean etxe askotan izango da gaurkoan 6

Egunkariak banatzeaz gain, umorea eta ilusia ere banatu ditu

TOLOSALDEA Lorenzo Rojo 30 urtez aritu da euskal prentsa garraiatzen 7



Goiko argazkian, Berastegin Errege Magoek etorrera egin zuten unea. Behean, Amezketan, gaztetxoak kantari etorrera ospatuz. N. GARZIA

Aurrena hilen oroimenez



» Uzturretik

Patziku Perurena

Ergeldu egiten gara. Hori da gure iraultza posible bakarra. Eta atzenaldira, aurrena jaiotzeak jainkotu egiten gaitu. Eta zergatik ez, aurrena hiltzeko?... Joan den urtean gure ama hil zen aurrena Leitzan. Karmen Tellerikoa bigarren. Aurten, berriz, Mikela Astaitzagakoa hil da aurrena. Eta ez ote dute urteko lehen jaiotza kroniko horiek baino askoz denbora poetiko finagoa sortu inguruan?...

Edo hau ere *Erlejuen Mekanika* hutsa ote dut Jose Luis? Hala diok benpe akaberako poeman: «*Erloju*

txikitzen jarraituko dut/ denbora egiten ikasi arte. Baina jendearen akordurik gabe ezin denbora egin». Bai, aurten aurrena jaiotako haur mekaniko horiek, erloju hilak dituk jadanik. Baina, nik nahiko nik, gure ama, Karmen, Mikela... erloju biziak izatea gaur.

Maria Pilar, zuk ere baduzu Lasartetik, Karmenek eta Mikelak bezalaxe. Eta jaso dut zure *Heriotza Bizi*, eta leitu, eta markatu. Hala dio Xabier Galardik: «Heriotza poetizatzen edo ospatu daiteke beti». Nola ez ba. Azken aginaldoa izanik. Saski hutsik beteena. Bizi dezagun, bada, tentuz, Mari Domingin:

Oteizaren testua, nere bizia da. Baina jainko edo salbamen kontzeptuak kenduta. Baita Leterena ere. Baina, «sinisten dut» hori esan behar larriak ukatzen du «jakintsuagotzen gaituen zalantza orokorra». Nik «sumatzen dut» edo «sentitzen dut», esatearekin aski nuke poema horretan. Apalagoa

naiz, eta agian, sufrimendu erregularrago batean hazia. Ez dut jainko beharrik. Neroni naiz aski jainko. Ez inora «itxuli» beharrik ere, «jadanik forma guzien sorlekuan bizi bainaiz», atsedetik gabeko izate honen «arian». Erne Orixek hain maite zuen aritze honi!... Honatx, nonahi eta beti, heriotza nola den bizian ari.

Xabierren lau gai nagusiak: jainkoa, maitasuna, oinazea, heriotza, nahasian agertzen omen dira maiz; hala ere, lau gaiok lehentasuna omen dute edozeinen egitura emozionallean. Eta lauei sakon erantzun gabe, ez omen genuke nortasun eder posibiliterik. Baliteke. Nik, hasteko, aurrenekoa sobra dut. Eta asko maite duenak asko sufritzen badu, maitasun-oinazeak biz bat eginen nitzuke. Eta maitaleari deus ez bazaio hiltzen: atzenez, nere neurriko bihozto makur honekintxe aski.

Bai, galdera ederrak egiten ditu Xabierrek, batez ere, maitasunaz.

Baina, uste dut, bere bizian, maitatua izan dela maitale bainoago. Ez lituzke bestela, «barkatu» edo «galdu» (Lurdes) hola erabiliko. Maite denik ez baita inoiz gal-tzen, sortu edo argitu baizik. Horrexegatik, jainkoaren babes bila jotzen duena, harroago izan ohi da. Jainkoa (ente, kontzeptu gisan) desegin eta bere bihozaren neurri fintzen duena, aldiz, apalago eta buruz lasago. Izan ere, argia, fin eta xalobada, hiru bider baita argi.

Eta bukatzeko, Maria Pilar, labur beharrez, esaldi bakarrera bilduko dizut nerea: «Poesia, ezagutza aurreko ilusioa da; erlijioa, ezagutza ondoko ilusioa; eta aldi berean, era poetikoz eta erlijiosoz bizi ez den gizaki oro ergel hutsa da». Erlijioa, *religare* edo *oroimin* zentzu xaloan hartuz, noski. Esan nahi dut, atzenezan oroimin poetikora biltzen direla gure munduko istilu guziak. Nola zen ba Gustavo?... «Donde habite el olvido, allí estara mi tumba» Edo, ez?...

Meza ondoan hitz egingen dugu luzeago, Leitzan aurrena hildako erreginon bizieraz.

B Blogteka info

'40 Emozio urte' jaialdiko DVDa salgai

Laskorain ikastolaren 40. urteurrena dela eta, ikastolaren ibilbidea eszenaratu genuen ikuskizun baten bitartez abenduaren hasieran. Jaialdian sorrera garaian euskara- reno egoera Tolosan, administrazioarekin harreman zailak, urteetako bilakaeran izan diren zenbait gertaera eta une gogoangarriak, gaur egun adierazgarriak direnak eta etorkizunari begira izango diren erronkak plazaratu genituen adierazpen artistikoak eta era guztietako emozioak nahasiz: antzezpena, ikus-entzunezko baliabideak, musika, dantza, modu alaietan nahiz garrantzan, hunkigarrian nahiz barregarrian. Partaide ugari pasarazi ziren oholzatik edota pantailatik, gaur egungo nahiz iraganeko ikasle, guraso eta langileak.

Usabal guztiz bete zen eta jende asko bertaratu ezinik geratu zenez, DVD bat argitaratu dugu jaialdiaren grabaketarekin, eta bertan Laskorain Ikastolak Tolosako hezkuntzan eta euskalgintzan 40 urte hauetan egin duen historia agertzen da. Beraz, opari bikaina dutzue Merkatu Txikian edo ikastolako idazkaritzetan.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/laskorain/>

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Tolosa gasa: 943 675320

A Argazki zaharrak

Gabon kantuan 1954 eta 1956an

AMASA-VILLABONA • Gabonetako azken uneak izango dira gaurkoak, eta askorentzat, gaztetxoentzat bereziki, jostailu berriekin jolastan egoteko eguna izango da. Gabonek egun asko hartzen dituzte, ordea, eta jada atzenez geratu da Gabon eskean aritzekoa, abenduaren 24a. Aurten ere, eskualdeko herri- ugari ateratu da kalera ohiko abestiak kantatzera.

Goiko argazkian, 1956ko abenduaren 24ra egingo dugu atzera; Amasako mutiko gazte batzuk ikus ditzakegu, bibote eta guzti. Eguzkialde etxearen aurrean daude, eskola zahararen sarrera eta leihoaren parean. Astoa lagun izan zuten kalejiran, eta soinua ere ez zitzaie falta.

Behereko argazkia, berriz, bi urte zaharragokoa da, 1954ko abenduaren 24koa, hain zuzen ere. Gabonak iritsi baino lehen, Villabonako zentro parrokialdeko gazteak kantuak entseatzeko biltzen ziren. Abenduaren 24an, Villabonako kaleak eta tarteka Amasako baserriak igarotzen zituzten Gabonetako kantua abestuz. Ikusgai dugun argazkia Etxe-Ondotik Garmendi alderako bidean ateratu zuten. AMASA-VILLABONAKO ERRETURATU ZAHARRAK ARGAZKI LIBURUA



Eguberrietan ohikoak dira berokiak, bufandak eta eskularruak, eta baita gehiago gastatzea ere. Opariak eta janariak dira garai hauetako izarrak. Opariak erosi ohi diren hiru dendetako jabeek beraien iritzia eman dute egun hauetako kontsumo ohiturei buruz: jostailu denda bat, bitxitegi bat eta bazar bat.

«Eskatu badu, lortu egin behar da»

ARANTXA JAUREGI › Amets Jostailuak-eko dendaria

ASIER IMAZ

Amets Jostailuak dendan lan egiten du Arantxa Jauregik (Tolosa, 1957). Urteko salmentarik handienak Gabonetan egiten dituzte bertan eta aurten ere horrela izan dela aipatu du Arantxa Jauregik. Denda jendez beterik izan arren, une batean opariaren inguruan hitz egin digu.

Olentzero eta Erregeen artean ezberdintasunik ba al dago salmentari dagokionez?

Nik uste Olentzerotan guk gehiago saldu dugula. Erregeetako azken aste hau ere oso indartsua izaten ari da baina, Olentzerotan aurten



ASIER IMAZ

sekula baina azkarrago hasi ginen, abenduaren erdi aldera edo hasi ginen saltzen.

Aldez aurretik edo azken momentuan erosten du jendeak?

Denetik dago baina askok azkenean uenean erosten ditu jostailuak. Gaur [atzo] bertan ikusi besterik ez dago nola dagoen denda.

Mutilentzat izan edo neskentzat izan, ba al dago ezberdintasunik?

Bai. Desberdintasun horrek jarraitzen du; neskak pampina... hala eta gutziz ere aldatzen ari da azken aldiko makinekin, Game Boy eta antzekoekin, baina oraindik ere ezberdintasuna nabarmentzen da.

Telebistako iragarkien eragina ere nabaritzen al duzue?

Askok. Horretaz gain nik dendari bezala ikusten dudana zera da, umeak jostailu bat eskatu baldin badu, askok berarentzat egokia ez izan arren, hori erostera etortzen direla.

Ez dira beraz kontuan hartzen jostailuaren ezaugarriak erosterako unean.

Askok ez. Beste batzuk aldiz bai. Haurrentzat egokia ez baldin bada baina umeak eskatu baldin badu, askorentzat hori lortu behar da. Nik hori ikusi dut.

Euskarazko jokuak saltzen al dira?

Bai. Askok gainera. Aurten *Mihiluzen*-ren jokua asko saldu da eta ondorioz agortu egin da gainera. Askok saldu den beste euskarazko jostailua Aitor Berritxu ordenagailua izan da.

«Lehen gehiago erosten zen»

JUAN LUIS CID ETA MARIA JESUS GOMIA › Juan Luis bitxitegioko jabeak

I. GARCIA/I. TERRADILLOS

Juan Luis Cid (Allariz, Galizia, 1956) eta Maria Jesus Gomia (Tolosa, 1955) Juan Luis bitxitegioko jabeak dira.

Zer nolako salmenta duzue sektorean?

Urte honetan nabaritzen da krisia dagoela. Hipoteken igoerak, esaterako, eragina du hainbat sektoretan. Ostalaritza ere hasi da kexatzen.

Zer jende mota etortzen da?

15-16 urtetik hasita, adin guztietakoa jendea etortzen da hona.

Gabonetako oparia erostera joa-



I. GARCIA

ten direnak ideia jakin batekin etortzen dira?

Denetatik dago. Batzuk erakuslehoan ikusi dutenaren eta gustatu zaienaren bila etortzen dira zuzenean. Beste batzuk aurrekontu batekin sartzen dira eta horren arabera bilatzen dute.

Gizonezkoentzat zer erosten da?

Batez ere erlojuak eta batzuetan eskumuturrekoak eta eraztunak. %90ean erlojuak erosten dira.

Eta emakumezkoentzat?

Belarritakoak, lepokoak... Aukera zabalagoa da. Halere, ez dago hainbesteko ohitura soinean bi-

txiak janztekoa. Belarrietakoan gizonezkoekin alderatuz, askoz gehiago erosten dituzte. Gizonezkoek belarritako bat jarri eta ez dute kentzen denbora luzez.

Erotera zein etortzen dira gehiago, emakumezkoak edo gizonezkoak?

Normalean emakumezkoak etortzen dira gehiago, baina garai honetan gizonezkoen kopurua handitu egiten da.

Salmentan nabaritzen da Eguberriak direla?

Lehen Eguberrietako tontorra gehiago nabaritzen zen. Opariak egiten jarraitzen du jendeak, baina urte guztian zehar egiten du hori.

Beraz egun hauetako kontsumimoo ez da hainbeste nabaritzen?

Egun badago, baina ez lehen bezala. Orain beste opari batzuk ere egiten dira, bidaia esaterako.

«Azken egunean erosten da gehien»

XIAOE CHEN › Bazar Gema dendako jabea

I. GARCIA/I. TERRADILLOS

Bazar Gema dendako jabea da Xiaoe Chen.

Eguberrietan nabaritzen da jendeak gehiago erosten duela?

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 5ean erosten du jendeak gehien. Azken egunean aritzen dira erosketak egiten.

Aurten zer moduz doaz salmentak?

Oraindik ez dakit nola joango diren, baina Eguberrietako salmetak 2006tik 2007ra jaitsi egin ziren.

Zergatik uste duzu izan dela behar bada hori?



I. TERRADILLOS

Ez dakit, izan daiteke erosi gaiten prezioa igo egin dela, baina soldatak ez hainbeste. Plastikokoak, esaterako, igoera handia izandu.

Gizonezkoak edo emakumezkoak etortzen dira gehiago?

Emakumezkoak etortzen dira gehiago. Nik uste edozein dendetara emakumezkoak gehiago joaten direla.

Eguberrietan jostailu gehiago erosten dira?

Bai, jostailu gehiago erosten dira. Sukalderako artikulua eta urtean zehar gehiago erosten dira, adibidez.

Igandetan nabaritzen da jende gehiago etortzen dela?


Abenduan zehar sartu da jende gehiago, baina hemen ohitura handia dago herritik kanpora ateratzeko igandean. Etorkinak gehiago gelditzen dira Tolosan.

Txinan Eguberriak ez dira ospatzen, ezta?

Han Eguberriak ez dira ospatzen, baina urte aldaketa bai. Aurten otsailaren hasieran izango da. Han urteko opor nagusiak dira.

Eta urte amaierako garai horretan ere opariak egiten dira?

Bai, han ere ohitura dago, baina ez dira jostailuak oparitzen, janaria baizik. Txinan jendea serioagoa da eta opariak egiten dituenan, normalean janaria oparitzen du. Jostailuetan ez da dirua gastatzen. Halere, orain zertxobait aldatzen ari da.



Orean etxer etxe ibili ziren Hiru Errege Magoak. Berastegin udaltekoko balikoik zuzendu zitzaizkien herritarrei eta Leitizan pajeek lan gogorra egin behar izan zuten. IRTZA

Errege Magoak Haurrak eta eurria izan ziren Gaspar, Melchor eta Baltasar igarotzean protagonista atzo, bi eskualdeetako herrietan.

AFER IMAZ/NAIARA GARZA
Gabonen azken txanpian Errege Magoak agertu zirenekin eskualdeetako hainbat herrietatik barrena. Kaleak gainezka, haurrak urduri

eta zenbait guraso haurrak bezain hunkituta. Melchor, Gaspar eta Baltasar ez ziren bakarrik etorri, ordea, ekialdetik, izan ere, herri askotan paje-

ak izan zituzten lagun. Hauek modu ezberdinetan aritu ziren lanean, herribatuzan suzko antortzik emana, besteetan musikal kabalgata zabalduaz eta ia denetan, goxokiak bildutako jendeari oparituaz, izan ere, Errege Magoak hiru diren arren, atzo kaleetan bildutako jendetza astetzeko nahiko lan izango zuten hiruiek bakarrik. Ez da ahaztu behar gau aldere-

zutea hauek euren lan gogorrena. Izan ere, ilunabarreko ospakizunak ospakizun, Errege Magoek gauen azkar berritu zituzten etxe guztietan oparirik.

Euria ez zen ostopo izan

Goizean amantamalo ekialdiak, Alegia edo Anoteren kasu, estalpean burutu ziren eurria medio. Arratsaldean, kabalgatan orduan,

eurria ez zen ostopo izan, lagunbaitzik. Haur gehienak aterkipean aurkitzen baziren ere zenbait herrietan, kabalgataren etorrerak sortutako urduritasunak inguruan gertatzen zen ia dena kendu ziren burutik.

Gabonetan txikiengain sortzen den ilusioak, astelehenerik aurrera izango dituen komeririk, berriz eskola edo ikastetxetan abiatzen.



Baltasarrek familia lagun izan zuen Villaborako kabalgatan. IRTZA

Haurrak jolasean eta dantzan

ALEGIA Hiru Errege Magoen etorreraren jaia goizean hasi zen atzo Alegian, izan ere, herriko frontoian ume plasek antolatuta zuten. Haurrak koskoiak bilzen, auzpegiak marzaten, pulserak egiten eta albar-bilondoren, Dantzari Txiki taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Baina benetan gozoa, jaiaren amaierako txokolata eta bikotxoak izan ziren. XABER

Iragarki laburrak

SALGAI
Autoa. Volkswagen Passat. 2004, 1900 TDI, 130 zaldi. 620 72 76 91.

NUTRIZIO AHOIKULARITZA
DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERRIZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK
AMAJA ETXETXIPIA
BIOTOGA
KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2º BEHUKA, TOLOSAN. TEL. 677 924 881



Tolosako Gabonetako Azoka Berezian salgai jartzen dituzte errege-opilak. NEREA URBIZU

Errege Magoen etorrerarekin eta Eguberrien amaierarekin batera beste ohitura zapoetsu eta atsegingarria dator: errege-opila.

Eguberrien agur gozoa

HARRIET BELLOSO

Hiru Errege Magoen etorrerak Eguberrien amaiera iragartzeko da. Errege Bezpera urduritasunez eta ilusioz beteriko eguna da, batez ere etxeko gaztetxoentzat. Urteko gau luzeana eta gero, opariekin disfrutatzen garaia iritsiko da. Milaka opari desberdin egongo dira etxetan, baina familia guztiak gozo berdinarekin gosalduko dute: errege-opila.

Errege egunean Tolosako mahai guztietan topatuko dugu errege-opila, baina, nondik dator jaki gozo hau jateko ohitura?

Mende askoko ohitura

Errege-opilaren jatorriak ez du zerikusirik Errege Magoak Belemnara egin zuten bidaiarekin. Julio Cesaren garaian kokatu beharko genuke gozo honen sorrera.

Neguko solstizioaren amaiera eta egun luzeagoen hasiera ospatzeko eztaiz, pikuek eta datilek egoniko tarta borobilak egiten zituzten, beranduago plebeio eta esklabuen artean banatzeko. Saturno jainkoaren omenez ospatzen ziren egun horietan esklabuak etxeko buru bihurtzen ziren, eta urte guztiaren zehar debekatuta zeuden jokuak, dardoekin egoniko jolasak adibidez, praktikatzeko ziren. Haragikeriaz beteriko egunak izan ohi ziren.

III. mendean tartan baba lehor bat sartzen hasi ziren, eta hura aurkitzen zuena denbora epe labur baterako *Errege guztietatik errege* izendatzen zuten.

1000. urterako elizak hasierako ohitura horiekin amaitu zuen, eta Frantziar adibidez, babaren sari berezi hori herriko umepobreenari ematen zitzaion. Erdi aroan, errege-opilaren zati bat al de batean uzten zen behartsuen artean banatzeko. Nafarroan, esaterako, erregeek hautatzen zuten sarritua, eta honen familiak dirua eta elikagai ugari jasotzen zituen.

Felipe V.ak Frantziatik inportatu zuen ohitura hau. Bertan errege-opilak *Galette des rois* izena hartzen du, eta nahiz eta Eguberrien amaiera ospatzeko erabiltzen den ere, osagaiak guztiz desberdinak dira. Portugalen, aldiz, *Bolo de Rei* izena hartzen du, eta hemen bezala, Errege Magoen etorrera ospatzeko jaten da.

Hemen ere ezinbestekoa

Lehen aipatu dugun bezala, Euskal Herrian errege-opilaren jatorria Nafarroan koka genezake. Tolosako Gorrotxategi gozodendan esan duten bezala «ze herritan hasi ziren ohitura honekin ez dago ziur, baina, Nafarroan izan zela segurua da. Baba aurkitzen zuena *Rey del Haba* izendatzen zuten, sari eta opari ugari jasoz».

Baina, azken urteetan ohiturak asko aldatu dira. Lehen bati baba lehor bat jartzen zen, «baina gaur egun plastikozko panpinak jartzen dira, batez ere hiriburuetan», diote Gorrotxategikoek. Hasiera batean opilak hutsik egoten ziren, baina jendearen eskaerengatik kremarekin eta esnegainarekin betetzen hasi dira ere. Normalean okindegi gehienetan opilezko errege-opilak egiten dituzte, baina Gorrotxategi bitoko erretzarekin jarraitzen dute lanean. Ogiak opila baino garrantzi handiagoa du beraientzat. Ogia, limoia, arraultzak eta naranjak izan beharko lirarteke osagaiak errege-opil on bat egiteko. «Bere usain gozoak eta ehundura bereziak adikzioa sortu dezake».

Gozona okindegiak urte asko daramatza errege-opilak egiten. «Lehen gosaltzeko jaten zen bakarrik, baina orain postre bezala ere jaten du jendeak». Tolosako dendetan gehien saltzen den produktuatariko bat da eta Gozonako enanetan «Tolosako etxe guztietan jango dute errege-opila gaurko egunez». Etxean egin nahi badugu «irina, arraultzak, esnea eta azukrea beharrezkoak dira».

Ezeiza okindegian ere sortu zenetik errege-opilak egiteko ohitura izan dute. Betidanik baba jarri izan dute opiletan, baina azkenaldian panpin txikiak ezartzen hasi direla azaldu dute.

» ERREZETA

Osagaiak

- Irina. 400 gramo.
- Gurina. 100 gramo.
- Azukrea. 100 gramo.
- Legamia. Koilarakada bat.
- Esnea. Litro laurdena.
- Azahar ura. Koilarakada bat.
- Limoia. Birrindua.
- Fruitu konfitatua.
- Gatza.
- Baba.

Prozedura

- Lehendabizi, legamia 4 esne koilarakadekin nahastu, ondo eragin nahasketa. Ondoren, 100 gramo irin gehitu eta nahastu dena, berriro ere ore bat sortu arte.
- Beste ontzi batean gainontzeko irina (300g) ipini. Erdian tarte bat egin, hiru arraultza, azukrea, esnea, azahar ura eta limoi birrindua gehituz.
- Aurrekoa ondo oratu, ore fin bat sortu arte.
- Ore fina lortu ostean, gurina gehitu.
- Hau guztia egina dugunean, utzi oreia jalkitzen bi orduz gutxienez.
- Ondoren, berriro ere oratu, baina oraingo honetan errege-opilaren itxura eman behar diogu.
- Labera sartu aurretik opilaren gainean fruitu konfitatua ipini behar da, eta orearen artean baba bat (edo egoki ikusten duguna) sartu.
- Dagoeneko berotua egongo den labean sartu behar dugu errege-opila eta mantendu bertan 20 minutuz 160 graduko temperaturan.

Eskaintza zabala, baina Gabonetako ajea nabaritu da azokan

Azoka » Aipatzekoak izan ziren azenarioak eta porruak, urte osoko izugarrienak; frutabolak ere aukeran ziren.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso lasaia hasi zen goizeko lehenengo orduetan. Dirudienek, Gabonetako ajea nabaritzen hasi da dagoeneko, eta atzo behintzat, eguerdira arte itxoin egin behar izan genuen giroa berotzen somatzeko.

Eskaintza, berriz, oparora

Eskaintzari dagokionez, kontrakoa esan beharra dugu. Izugarri zabala eta kalitatezkoa izaten ari da egun hauetan. Aipatzekoak azenarioak eta porruak, urteko izugarrienak, eta hauekin aukeran dauden babarrunak, azak, azaloreak, bruselazak, edo eta romanesku azak.

Atari kalean ere oso eskaintza zabala izan zen. Frutabola asko eta baso espezie ugari postu guztietan.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	2,20
Krisantemoa	3,00	12,00
Xarbota	4,00	6,00
Erroneroa	4,00	6,00
Txinatar khabelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-

Bertako produktuak

Fruta		
Pikua	2,00	-
Gaztaina	3,00	-
Errezil sagarra	0,80	8,00
Intxaurra	2,50	4,00
Mizpiradia	3,00	-
Urrak	2,00	3,00
Barazkiak		
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Ibarrako piparrak	4,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Azenarioa	1,20	7,00
Porrua	1,00	8,00
Azalorea	1,00	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00
Arroza	1,90	2,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Ogia	2,55	-
Arraultzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Azukrea	3,35	-

Fromistan jaio zen, eta 18 urterekin etorri zen Tolosara bizitzera Lorenzo Rojo; euskal prentsa banatzeaz arduratu da 30 urtean: 'Egin', 'Egunkaria', 'Berria' eta 'Gara'; urte hauetan guztietan gertatu izan zaizkion hainbat pasadizo kontatu ditu, umoretsu.

Egunkari, umore eta ilusio banatzailea

DOIA ETXEBERRIA (BERRIA)

Hor dator, bere irribarrearekin eta betaurrekoekin. Martin Ugalde kultur parkera. Alkandora koadroduna, panazko galtza argiak. Ez lanerako jantzita, baina bai behar denerako prest. Betiko legez. Aldamenean duen likidanbarrari hostoak erori ahala kontatu ditu abenturak. Hai-ze zurrunbiloa balitz bezala. Ahots burrunbatsuz. Eta ez dira kontu gutxi. Lorenzo Rojo euskal prentsa banatzeaz arduratu delako 30 urtean. Tarte horretan bi egunkari itxi dituztelako. Egunkariez gainera, umorea eta ilusioa banatzen ere trebea delako.

Umetatik maite ditu autoak eta txofertza. «Eta txikitatik gustatu izan zait guardia zibilak izorratzea ere!», dio barrez. «Behin, 14 urterekin, merienda lapurtu genien». Fromista herrian gertatu zen hori, Palentzian. Bertakoa baita. Osabazebekin etorri zen Euskal Herrira, lanera, 17-18 urterekin. Eta baita abertzaletu ere. Franco bizirik zen artean. Seat etxearen tailer batean hasi zen lanean. Gero Ainhua Artetaren aitaren txoferra izan zen.

Ezkundu zenean, Tolosatik Anoetara joan zen bizitzera. «Salbador Garmendia ezagutu nuen han, eta orduantxe hasi zen *Egin* sortzeko mugimendua. Eta gure familian betidanik ezkertiarak izan garenez...». Ez zuen birritan pentsatu. Garraio lanak egiteko eskaini zuen bere burua. «Hori bai, ni inoiz ez ninduten autonomo gisa ikusi; ni lagun koadrilako beste bat nintzen! Denetik egin dut *Egin*-en, artikuluak sinatu izan ezik. Behar

«Jazarpena handia izan da, baina ni ez naiz isildu», azaltzen du Lorenzo Rojok

zena!». Oso oroitzapen onak ditu. «Kazetari zein banatzaile, denok batuta geunden, ilusioz; egunkaria ateratzeaz garrantzitsuena. Oso ondo pasatu genuen. Eta oso gaizki ere bai: diruz justu-justuan ibili gara beti, militantzia zelako gurea.



Lorenzo Rojo garraiolaria Andoainen, Martin Ugalde parkean, berea izandako furgonetaren aurrean. JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

Baina ez naiz damutzen! Harro nago. Gustura hilko nintzateke egunkari hura berriz kalean ikusiko banu! Batzuei muturrean emateagatik bakarrik!».

«Gorriak ikusitakoa da Rojo. Makina bat bider geratu dute bide bazterrean, goizeko ordu txikietan. «Beste edonori bezala hitz egiten nien guardia zibilei. Egunero kontrola, galderak... beldurra galduz zoaz! 'Eta zuk, Palentziakoa izanik, zergatik egiten duzu lan egunkari horretan?'. 'Ba zuk Guardia Zibil sartzea erabaki duzun arrazoi berarengatik!'. Bolada batean gauero geratzen zuten, «eta eztanda egin nuen: 'Aski da! Tiro bat bota edo eraman epailearengana! Lau seme-alaba ditut, eta egu-

nero goizeko ordu bietan jaikitzen banaiz, haiei jaten emateko da, ez zuek nire kontura barre egiteko». Handik aurrera lasaia go ibili zen.

«Jazarpena handia izan da, baina ez naiz isildu!». Behin, lanean jarri zituen guardia zibilak. «Furgoneta irauli zitzaidan, Irurtzunen, elurrarengatik. Eta Guardia Zibila etorri zen: 'Zer, esku bat bota behar da?'. Eta nik: 'Bat ez, biak! Egunkariak iritsi egin behar dira'. Egunkariak errepidera ateratzen hasi ziren. Haiek ere barrez: 'Egin-ekoari laguntzen...'. Gara-biari deitu, eta iritsi ziren egunkariak. Egun bakar batean ere ez du burugorra naiz!». Lekuberrin astoa harrapatu zuenean ere bai:

«Behe lainoa zegoen, eta errepidera irten zen. Esan zidaten: 'Ez dakigu nor den astoagoa, animalia edo zu!'».

Egunkaria sortzean, *Egin*-ekin batera hura banatzen hasi ziren. *Egin* itxi arte. «*Egin*, *Egunkaria*... Dena ixten digute, zeruko atek ere bai ia-ia!». Iazko abuztura arte, erretiroa hartu zuen arte, *Gara* eta *Berria* banatzen zituen.

«Ez naiz aspertzen!»

Ez zaio batera kostatu gaeuz lo egitea: «irrikan nago elurra egiteko, leihotik begiratu, eta goxo-goxo ohean sartzeko!». Andoaindik Palentziara joan-etorrian dabil. «Euskalduna sentitzen naiz, baina jaioterria ere gustuko dut». Arra-

» BIZITZAKO UNEAK

- 1946. Fromistan jasio zen (Palentzia, Espainia).
- 1964. Tolosara etorri zen.
- 1973. Aita izan zen lehen aldiz.
- 1979. *Egin* sortu eta banaketaz arduratu zen. Orduetik, *Egunkaria*, *Gara*, *Berria*...
- 1982. «Nik eman nion *Kirolegin* trofeoa Urkiagari. Txoferrak. Hori ez da munduko beste egunkari batean gertatuko».

tsaldero bodegan du hitzordua lagunekin, ardo pixka bat edan eta sabela berdintzeko. Baikorra, ausarta eta geldigorra, halakoxea da Rojo. Doan tokira doala, lagun bat aurkituko du beti.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Txistulari Taldearen kanlejira 12:00etan.
- **Tolosa.** XXVI. Eguberrietako Shanti Txapelketako finalak jokatuko dituzte, Usabal kiroldegian, 10:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren eta Txistulari Bandaren Eguberrietako kontzertua, 12:30ean, Musika Eskolan.
- **Tolosa.** Gabonetako merkatu txikia Sahara eta Ekuadorren alde Kultur Etxean, Laskorain ikastolak antolatuta, Sahara eta Ekuadorren alde.
- **Tolosa.** Sahararrei laguntzeko janari bilketa abian eskualdean. Arroza, dilistak, hegaluzea, azukrea eta konpresak utzi behar dira aurtengo kanpainan.

Zinema

- **Tolosa.** *Michael Clayton* filma, gaur 19:30ean eta bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean; eta *Donkey-Xote* gaztetxoentzako filma gaur, 17:00etan.
- **Villabona.** *Un funeral de muerte* filma bihar (ikuslearen eguna) 21:30ean, eta *La brujula dorada* filma gaur, 17:30ean eta 20:00etan Gurea zinemaren.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

- **Ibarra.** Ugarte, MT. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, MT. Elbarren, 36. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Goazen denak zirkoan parte hartzera!

ANOETA • Eguberrietako egitarau bereziaren baitan, Zirko Eskola izan zuten atzokoan gaztetxoek. Hala, era guztietako akrobaziak eta malabareak egiten ikasi zuten, eta oreka jokoak egiten ere aritu ziren. Horretarako,


noski, laguntzaileak izan zituzten. Gaztetxo ugari animatu ziren baloiaren gainean jarrita, edota lokarriaren gainean oreka mantentzen, eta ederki asko moldatu ziren. Guztiek ere oso ongi igaro zuten. **A. IMAZ**

A Agurrak



Urte askoan!

Ana Jesus Argote (Belauntza). Gaur 26 urte. Zorionak eta muxu bat Asier eta etxekoen partetik.



Urte askoan!

Ioritz Agirretxe Arozena (Altsasu). Bihar 6 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.




Urte askoan!

Maddi Begiristain (Villabona). Bihar 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat Manex eta etxekoen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

txokoa **h**



5 sarrera pare zozketan, deitu eta eskuratu

urtarrilak 11 • ostirala, 20:00etan
Donostiako Antzoki Zaharrean



gonbidatzen zaituzte

deitu astelehena edo asteartean goizez

Xurdirin en materiala



Sointek
Produktzioak-en
eskutik

Irabazleak:

- Iñaki Iturrioz (Tolosa)
- Tere Larrarte (Ibarra)

saria jasotzeko, HITZA jarriko da zuekin harremanetan